

## ARIKETAK

### 1 *Euskaltzaindiaren web-etik honako arauak*

#### KOMUNZTADURA APOSIZIOETAN

1. a) Udal Euskaltegiko irakaslea Ander Arandiak zuzenduko ditu azterketak.  
b) Udal Euskaltegiko irakasle Ander Arandiak zuzenduko ditu azterketak.  
c) Ander Arandia Udal Euskaltegiko irakasleak zuzenduko ditu azterketak.
2. a) Adriano VI. Aita Santuak kale bat du Gasteizen.  
b) Adriano VI.a Aita Santuak kale bat du Gasteizen.  
c) Adriano VI.ak Aita Santuak kale bat du Gasteizen.
3. a) Felipe II. erregearen gortean ez omen zegoen meteorologorik.  
b) Felipe II.a erregearen gortean ez omen zegoen meteorologorik.
4. a) Antso Azkarra Nafarroako Erregea NBAko jokalaria izan zitekeen, 2,20 m-koa zen eta.  
b) Antso Azkar Nafarroako Erregea NBAko jokalaria izan zitekeen, 2,20 m-koa zen eta.
5. a) Iñakiren lehengusuak, asteburuan ikusi genuenak, goraintziak eman dizkigu.  
b) Iñakiren lehengusua, asteburuan ikusi genuenak goraintziak eman dizkigu.  
c) Iñakiren lehengusuak, asteburuan ikusi genuena, goraintziak eman dizkigu.
6. a) Jose Felix Ramos Ugartek, Txintxurretako idazkariak, lehiaketako epaimahaiburuak honako hau ziurtatzen du: ...  
b) Jose Felix Ramos Ugarte Txintxurretako idazkariak, lehiaketako epaimahaiburuak, honako hau ziurtatzen du: ...  
c) Jose Felix Ramos Ugartek, Txintxurretako idazkari, lehiaketako epaimahaiburuak honako hau ziurtatzen du: ...  
d) Jose Felix Ramos Ugartek, Txintxurretako idazkari eta lehiaketako epaimahaiburuak honako hau ziurtatzen du: ...  
e) Jose Felix Ramos Ugartek, Txintxurretako idazkaria, lehiaketako epaimahaiburuak honako hau ziurtatzen du: ...  
f) Jose Felix Ramos Ugarte, Txintxurretako idazkaria, lehiaketako epaimahaiburuak honako hau ziurtatzen du: ...

#### NOLA ADIERAZI IRAUPENA SINTAGMA ZENBATZAILEDUNETAN

7. Hiru hilabete eman dituzu oposizioetarako jo eta ke ikasten, urtariletik martxora: zein da esaldi zuzena?  
a) Hiru hilabete egon naiz jo eta ke ikasten.  
b) Hiru hilabetean egon naiz jo eta ke ikasten.  
c) Hiru hilabetetan egon naiz jo eta ke ikasten.  
d) Hiru hilabetez egon naiz jo eta ke ikasten.
8. Hiru azterketa egin dituzu: bat abenduan, beste bat martxoan eta azkena ekainean. Zein da esaldi zuzena?  
a) Hiru hilabetean egin ditut azterketak.  
b) Hiru hilabetetan egin ditut azterketak.
9. Urtariletik martxora bi azterketa egin dituzu: zein da esaldi zuzena?  
a) Hiru hilabetean bi azterketa egin ditut.  
b) Hiru hilabetetan bi azterketa egin ditut.

# ARIKETAK

## NOLA ADIERAZI MAIZTASUNA SINTAGMA ZENBATZAILEDUNETAN

Ea zenbat erantzun bururatzen zaizun:

10. Bilera batetik hurrengora bi aste igaro behar badira beti, noizero biltzen gara?

---

---

---

11. Aldizkari baten ale berriak kaleratzeko hamabost egun igaro behar badira beti, noizero kaleratzen da?

---

---

## IZEN SINTAGMEN ARTEKO LOTURA

12. a) **Gu**, **zuek** eta **berari** ohar bera eman ziguten.  
b) **Guri**, **zuei** eta **berari** ohar bera eman ziguten.
13. a) **Esne**, **ogi**, **gatx** eta **olioa** ekarri behar dituzu dendatik.  
b) **Esnea**, **ogia**, **gatxa** eta **olioa** ekarri behar dituzu dendatik.
14. a) **Zuzendari**, **idazkari** eta **zerbitzuburuarekin** egin behar dugu bilera.  
b) **Zuzendaria**, **idazkaria** eta **zerbitzuburuarekin** egin behar dugu bilera  
c) **Zuzendariarekin**, **idazkariarekin** eta **zerbitzuburuarekin** egin behar dugu bilera
15. a) Saldu behar ditu etxean ditudan **aldizkari**, **liburu** eta **diskoak**.  
b) Saldu behar ditu etxean ditudan **aldizkariak**, **liburuak** eta **diskoak**.
16. a) Taldeko **kantariak**, **musikariak** eta **dantzariekin** ikuskizun aparta osatu zuten.  
b) Taldeko **kantari**, **musikari** eta **dantzariekin** ikuskizun aparta osatu zuten.  
c) Taldeko **kantariekin**, **musikariekin** eta **dantzariekin** ikuskizun aparta osatu zuten.
17. a) **Lehendakaria** eta **sailburuen** arteko bilera izan zen atzo.  
b) **Lehendakari** eta **sailburuen** arteko bilera izan zen atzo.  
c) **Lehendakariaren** eta **sailburuen** arteko bilera izan zen atzo.

2

## ZALANTZA-DANTZA

Aurreko aleari jarraituta, Zalantza-dantza liburuxkari heldu diogu ondoko ariketak lantzeko. Dakizunez, udako alearekin batera banatu genuen liburuxka hori eta, bertan, egunero sortzen zaigun hamaikaxo ezbai argitzeko aholkuak eman genituen. Ea oraindik gogoratzen ditugun!

1. **Gose asko** zuenez, mauka-mauka jan zuen eman zioten guztia.

---

2. Askok nahi lukete Pinochet bezala **detenituta** egon.

---

3. Hobe da entzuleak **aurrekaldean** kokatzea, **atzekaldean** badaude ez dute ezer entzungo eta.

---

4. Erabakiarekin ados ez zegoela, errekurso bat jarri zuen **Zerbitzu Zuzendaritzaren aurrean**.

---

5. Lege batek arautzen du bidaiariak **kotxez** garraiatzeko zerbitzu publikoa.

---

6. Ez dago zertan kezkatutik, **egoera baikorra** da eta.

---

# A R I K E T A K

7. Liburuak **baldintza txarretan** itzuliz gero, ordaindu egin beharko dira kalteak eta isuna.

---

8. Laguntza teknikoa **prezioaren barne** dago.

---

9. **Bezero bat** badator, itxaroteko esan, berehala itzuliko naiz eta.

---

10. Hau ez da proposamen **definitiboa**, zirriborro **probisionala** baizik.

---

11. Horrek ez du lotsarik batere: berandu datorrenean, **nagusi berari** ere egiten dio aurre.

---

12. Hogei urte daramatza emazte **berdinarekin** ezkondua.

---

Esan zein den zuzena:

13. a) Denon zalantzak **argitu asmotan** prestatu ditugu ariketa hauek.  
b) Denon zalantzak **argitu asmoz** prestatu ditugu ariketa hauek.  
c) Denon zalantzak **argitzeko asmotan** prestatu ditugu ariketa hauek.  
d) Denon zalantzak **argitzeko asmoz** prestatu ditugu ariketa hauek.
14. a) Ez zen publizitate handirik egin eta hamar **korrikalari** baino **gutxiagok** hartu zuten parte.  
b) Ez zen publizitate handirik egin eta hamar **korrikalarik** baino **gutxiago** hartu zuten parte.  
c) Ez zen publizitate handirik egin eta hamar **korrikalarik** baino **gutxiagok** hartu zuten parte.
15. a) **Batzutan**, lagun **batzuekin** joaten naiz, basoerdi **batzu** hartzera eta, askotan, **batzuk** ez dute inoiz ordaintzen.  
b) **Batzuetan**, lagun **batzuekin** joaten naiz, basoerdi **batzuk** hartzera eta, askotan, **batzuek** ez dute inoiz ordaintzen.  
c) **Batzutan**, lagun **batzuekin** joaten naiz, basoerdi **batzu** hartzera eta, askotan, **batzuk** ez dute inoiz ordaintzen.
16. a) Autobusa garaiz hartu nahi baduzu, oraintxe bertan **joan beharko duzu**.  
b) Autobusa garaiz hartu nahi baduzu, oraintxe bertan **joan beharko zara**.
17. a) Ez genituen opariak ondo **berezitu** eta orain ez dakigu norena zein den.  
b) Ez genituen opariak ondo **bereiztu** eta orain ez dakigu norena zein den.  
c) Ez genituen opariak ondo **bereizi** eta orain ez dakigu norena zein den.
18. a) Burutik jota dagoela? Ez naiz harritzen: azkenaldi honetan irratiko tertuliak **bestarik ez ditu** entzuten.  
b) Burutik jota dagoela? Ez naiz harritzen: azkenaldi honetan irratiko tertuliak **bestarik ez du** entzuten.
19. a) Erraza izango duzu azterketa gainditzea, **beti ere**, ikasten baduzu.  
b) Erraza izango duzu azterketa gainditzea, **betiere**, ikasten baduzu.
20. a) Gaur egun, burtsan akzioak edukitzea, bihotzerrea **edukitzea bezala** da.  
b) Gaur egun, burtsan akzioak edukitzea, bihotzerrea **edukitzea bezalakoa** da.

# SOLUZIOAK

## 1 Euskaltzaindiaren web-etik honako arauak

### KOMUNZADURA APOSIZIOETAN

1. b, c
2. b
3. b
4. a
5. a
6. a, b, c, d

### NOLA ADIERAZI IRAUPENA SINTAGMA ZENBATZAILEDUNETAN

7. a, b, d
8. b
9. a

### NOLA ADIERAZI MAIZTASUNA SINTAGMA ZENBATZAILEDUNETAN

10. Bi asterik behin, bi astetarik behin, bi astez behin, bi astean behin, bi astetik behin, bi astetik bi astera, bi astetatik bi astetara  
OKERRAK: bi astero, bi astetan behin
11. Hamabostero,  
hamabost egunik behin, hamabost egunetarik behin, hamabost egunez behin, hamabost egunean behin, hamabost egunetik behin, hamabost egunetik hamabost egunera, hamabost egunetatik hamabost egunetara.  
OKERRAK: hamabost egunero, hamabost egunetan behin

### IZEN SINTAGMEN ARTEKO LOTURA

12. b
13. b
14. c
15. Biak
16. b, c
17. b, c

## 2 ZALANTZA-DANTZA

1. goseak zegoenez, gose handia zuenez, gose-gose zenez, gose bizia zuenez...
2. atxilotuta
3. aurreko aldean/aurrealdean, atzeko aldean/atzealdean
4. ...errekurtso bat jarri zion Zerbitzu zuzendariari.
5. autoz
6. egoera ona, positiboa, itxaropentsua...
7. egoera txarrean
8. prezioaren barnean
9. bezerorik
10. behin betiko, behin-behineko
11. nagusiari berari
12. berarekin
13. c, d
14. c
15. b
16. biak
17. c
18. b
19. b
20. a